

Palestinako lan-borroka  
garaikideen dialektika

NITHYA NAGARAJAN

# Palestinako lan-borroka garaikideen dialektika

## Nithya Nagarajan

- 3 “Lehen Palestinaren alde egiten genuen borroka, orain irin-zaku bat lortzea da gure erronka”
  - 5 Gizarte segurantzaren 6. legea
  - 7 Finantzak eta interes bateratuak
  - 11 Finantzak, lan-diziplina eta bezero-kontsumitzailea sortzea
  - 14 Langile Mugimenduaren kontraesanak
  - 16 Praxiari eta ikerketari buruzko etorkizunerako jarraibideak
  - 19 Oharrak
- 21 **Borrokaren jakinduria**



**Dokumentuak 39**

*2018ko ekaina*

[www.mrafundazioa.eus](http://www.mrafundazioa.eus)

@mrafundazioa

---

## **“Lehen Palestinaren alde egiten genuen borroka, orain irin-zaku bat lortzea da gure erronka”: Palestinako lan-borroka garaikideen dialektika**

**Nithya Nagarajan\***

2012an, Zisjordanian petrolioaren eta elikagaien prezio-igoeraren kontrako manifestazioetan protesta egiten zutenek halaxe oihukatzen zuten: “Lehen Palestinaren alde egiten genuen borroka, orain irin-zaku bat lortzea da gure erronka”. Goiburu horrek ondo biltzen ditu lan-munduak gaur egun pairatzen duen uztarri bikoitza: alde batetik, kolonoen indarkeria erregularrak, eta, bestetik, langileen aurkako oldarraldi global neoliberalak. Biak ala biak egiturazko fenomeno ideologikoak dira, mundu mailan kapitala izaten ari den aldatetetatik sortuak. Palestinari buruz hainbat azterlan egin dira azken aldian, eta guztietan agerian geratzen da gobernu-eredu neoliberalaren edo kapitalismo berantiarren logika eskutik doala Israelen proiektu kolonialarekin (ikus Hanieh, Haddad, Bhungalia, Tabar)<sup>1</sup>. Alabaina, oraingo ez zaio arreta handirik jarri Palestinako lan arloko politikari, nahiz eta langileen protesta jendetsuen eskutik aspaldiko herri-mobilizazio handienetakoak izan diren Osloko Akordioez geroztik.

Analisi hauen irakurketa egitean, testuinguru historikoa oso aintzat hartu behar da; izan ere, Palestinako langile-erakundeak borroka nazionalistaren eta anti-kolonialaren mendekotzat hartu izan dira historikoki (Beinin eta Lockman; Aruri)<sup>2</sup>. Baina 2011ko matxinada arabiarren argitan agerian geratu zen klase-borroka zeinen garrantzitsua den eskualdeko politika garaikidea ulertu ahal izateko (Joya et al; Beinin eta Lockman; al-Nasseri et al.)<sup>3</sup> Palestinari buruzko azterlanetan lan-arloa alde batera uztea are esanguratsuagoa da kontuan hartuz gero lan-borrokaren molde berriak alderdien aparatutik ihes egiten saiatu direla, eta Oslo ondorengo

---

\* Ikerlaria eta irakasle bisitaria Zirjordanian (2018ko urtarrila; Zisjordania).

proto-estatuak lan-identitate aktibistaren kategoria berriak sortu zituela eta praxi-eremu berriak garatu zituela. Bigarren *Intifadaren* ondoren Langabetuen Sindikatua sortu zuten, Israelek eskulan palestinarrari bere merkaturako atea itxi ondoren langabezian geratu zen jende oldea ordezkatzeko. Sindikatu horrek ahalegina egin zuen komunitateetan sare- eta erakunde-estrategia berriak lantzen, ikusirik produkzio-zentroetan langileak ez zirela gai beren burua antolatzeke.<sup>4</sup> Hamás alderdiak 2006ko Palestinako hauteskundeak irabazi eta lasterrera, Sindikatu Independenteen Federazio Nagusia sortu zen, Palestina Askatzeko Erakundearen (PAE) lan-federazio ofizialen oposizio gisa. 2016ko apirilean, Gizarte Segurantzaren 6. legearen aurkako kanpainetan, koalizio berriak sortu ziren sindikatu, Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) eta alderdi politikoen artean, langileen mobilizazio berriaren adierazle. Azken aldiko historian lan-protesta handiena Irakasleen Mugimenduarena izan zen. 2016. urtean, eskola publikoetako 35.000 mila irakasle mobilizatu zituen protesta horrek eta ordezkari-egitura horizontalak baliatu zituen: greba-batzordeak hain zuzen (Israelen okupazio militarren garaian, 1967tik 1993ra, sortutako batzorde klandestinoak izan ziren greba-batzorde horien ernamuin)<sup>5</sup>.

Palestinari buruzko azterlan garaikideetan lan-munduaren egoera alde batera uzteak historiografia marxistaren ikuspegi bat gogorarazten digu: historia modu dialektikoan irakurriko badugu, ezinbestean ohartu behar dugu kapitalaren eraginez eratzen direla formazio sozialak, bai, baina baita kapitalak eragindako triskantzen aurrean batzuek eta besteek agertutako erantzun eta erresistentziaren bidez ere. Bada, Palestinako historia sozial garaikidea ulertuko badugu, lanaren ikuspegitik eta historia horren eta herrialdearen etorkizunaren muinean dagoen kontrolaren eta erresistentziaren arteko harreman dialektikoaren ikuspegitik aztertu behar dugu ezinbestean.

Artikuluaren hasieran, metodologia, ikergaiak eta ikertzailearen posizioa azaldu ditugu, eta, ondoren, gizarte segurantzaren 6. legearen aurka berriki izan den lan-mobilizazioa aztertu dugu. Amaitzeko, ikerketa eta praxirako etorkizuneko jarraibideei buruzko zenbait gogoeta jaso ditugu. [...]

---

## Gizarte segurantzaren 6. legea\*

2016ko apirilaren 19ko arratsalde beroan, milaka langilek eta langabek Zisjordaniako Ramallah hiriko kaleak hartu zituzten Palestinako Aginte Nazionalaren (PAN) lan-politiken aurka protestatzeko. Eguzki galdatan, manifestariei sua zerien ahotik, etengabe eta oldartsu “*Haramiyya*” (lapurrak) oihuka, harik eta barne ministerioaren eta ministro kontseiluaren erai-kinen pareko topagunera iritsi ziren arte. Langile independenteen mugimenduetako, ezkerreko alderdietako eta emakume batzordeetako antolatzailleak han bildutako jendetzari mintzatu zitzaizkion, kamioi baten atzeko aldean jasotako plataforma inprobisatu batetik. Polizia eta Palestinako Aginte Nazionalaren segurtasun-indarrak han agertu ziren istiluen aurkako ekipamenduarekin eta blindatutako ibilgailuekin, baina azkenean ez zuten esku hartu. Mahmoud Abbas presidentek 2016ko martxoaren 8an dekretu bidez berretsitako gizarte segurantzaren 6. legearen aurkako kanpainaren lehen manifestazio publiko eta kolektiboa izan zen protesta hura.

Langile independenteen mugimendu sortu berriak eta gizarte zibileko haien aliatuak izan ziren gizarte segurantzaren legearen aurkako mobilizazioaren buru. 2016ko otsailean eta martxoan 35.000 irakaslek eginiko greba handien jarraipena izan zen haien kanpaina. Palestinako langileen artean sortzen ari den antolakunde gero eta handiagoaren adierazle dira bi mugimenduak; izan ere, Palestinako Agintea, Israeleko politika kolonialari amaiera eman ordez, hainbat neurri ekonomiko neoliberal ari da bultzatzen, eta langileak horri erantzun nahian ari dira antolatzen.

Gizarte segurantzaren 6. legea eta horren lehen aldaerak izan ziren protestaren arrazoi nagusia hiru urte baino gehiagoan, eta haietan, besteak beste, Lanaren Nazioarteko Erakundea, Palestinako Agintearen Lan Ministerioa, sektore pribatua eta ikerketa institutuak eta lan-sindikatuak egon ziren inplikaturak. Sindikatuen artean, hauek izan ziren negoziazio zuzenetan aritu ziren eragile nagusiak: Sindikatuen Palestinako Federazio Nagusia (PGFTU, Shahir Saèd buru), Palestinako Sindikatuen Federazioa

---

\* Hurrengo atalak egile eta lan hauetan oinarrituta daude: Nagarajan, N., (2016), “Palestinian Workers Struggle for Social Justice”, Middle East Report-ek argitaratua, 281. zenbakia, “Aktibismoa” gaitzat harturik, 2016ko negua. Labor for Palestine erakundeak elektronikoki berrargitaratua hemen: US and Dawn News of the Bolivarian Alliance for the Peoples of Our Americas (ALBA movement) (<http://www.thedawn-news.org/2017/07/18/palestinian-workers-campaign-for-social-justice-2/>), 2017 (N. Alva ezizenarekin idatzia). Atal hauen erreferentziak eta aipamenak argitaratutako artikuluan daude. Saiakera honen oinarrian dauden artxibo ez-formalak ere aipatzen dira bibliografian, hala nola kanpainak prestatzeko eta kanpainetan zehar idatzitako memoriak (argitaragabeak) eta erreferentziako dokumentuak.

(PTUF, Haidar Ibrahim buru) eta Sindikatu Independenteen Federazio Nagusia (GFIU, Mahmoud Ziadeh buru). Elkarrizketa haietan agerian geratu ziren Palestinako mugimendu sindikalean dauden zatiketa sakonak. PGFTU eta PTUF federazioek eta Palestina Askatzeko Erakundearen (PAE) federazio ofizialek Palestinako Aginte Nazionalaren eta sektore pribatuaren eskakizunak babestu zituzten, eta, aldiz, federazio independenteak, GFIUk, barne zatiketa bizi izan zuen. Kideetako batzuek gizarte-babes unibertsalerako programa bat eskatu zuten, langile guztiak, nekazariak eta langabeak babestuko zituena. Beste adar batek (*'hamla'* kanpaina nazionalan kide izandakoak eta Palestinako Aginte Nazionalarekin izaniko azken negoziazioetan parte hartu zuenak), berriz, ildo apalagoari eutsi zion, baldintzak zein ziren kontuan izanda politikoki bideragarriagozat jotzen zuten ildoari. Lehenik eta behin, gaitzesten zuten legearen xedapenean estatuak ez zuela bermerik eskaintzen sektore pribatuko soldatapeko langileen pentsioetarako aurrezkiak funts nazional berri batean jartzeko. Legeak proposatzen zuen Palestinako Aginte Nazionalak izendatutako banku eta enpresa pribatuen kontseilu batek eta merkataritza-interesek kudea zitzatela inbertsioak finantza-merkatuetan, Palestinako Aginte Nazionalak inolako erantzukizunik izan gabe. Bigarrenik, kanpainaren ekintzaileek ez zuten begi onez ikusten enplegatuek funts horretara eginiko ekarpenak handitzea, eta enpresetako nagusien/ugazaben ekarpenak igotzea eskatzen zuten. Hirugarrenik, sektore pribatuko langileen pentsioak funtzionarioen pentsioekin parekatzea eta gutxieneko pentsio bat onartzea eskatzen zuten. Azkenik, beste talde sozial batzuen artean emakumeen, pentsiodunen familien, adinekoen eta ezgaituen aurka legeak sortzen duen diskriminazioaren aurkako jarrera ere agertu zuten.

2007an abiatutako talka-terapiako neurri ekonomikoen programa baten baitan jarri zen indarrean gizarte segurantzaren 6. legea. Palestinako Kontseilu Legegilea (Palestinako legebiltzarra) ez da bildu ofizialki 2006. urtearen amaieratik, eta, beraz, lege horiek guztiak presidenteak emandako dekretu bidez idatzi edo moldatu ziren, irismen publiko mugatuarekin. Langile-batzorde berrien eta sindikatu independenteen iritiz, langileen aurkako eraso gertatzen ari da fronte askotatik, eta eraso horren atzean enpresa handien eskakizunak daude: 2014an, Inbertsioa Sustatzeko 1998ko Legea moldatu zuten, interes pribatu handiei salbuespen fiskalak eskaintzeko, "inbertsiorako enpresa-ingurune egokiagoa" lortzeko aitzakian. 2015eko otsailaren hasieran, Palestinako Aginte Nazionalaren Lan

---

Ministerioak sindikatuei buruzko lege-zirriborro bat aurkeztu zuen; langile independenteen federazioen arabera, lege horrek sindikatuen antolaketa ezabatuko du, oso baldintza zorrotzak ezarriko baititu grebak eta bilerak deitu ahal izateko. Era berean, federazioek kezka adierazi dute indarrean den lege sindikalari proposatutako helegiteek kaleratze-prozedurak ez ote dituzten erraztuko, noiz eta langileei kontratu gero eta prekarioagoak eta laburragoak egiten zaizkienean. Aurrerago, hilabete horretan eta ateak itxita eginiko bileretan, Ministro Kontseilua eta enpresa handiak akordio batera iritsi ziren banakoei eta enpresei ezarritako zerga-tipoetan murrizketa gehiago ezartzeko. Sindikatu independenteek ez zuten bilera horietarako gonbidapenik jaso, eta ikusi zuten lege fiskala norentzako zen bereziki kaltetarria, langile-klasearentzako eta egoera ahulenean daudenezako, hain zuzen. Abbas presidentek, ordea, berretsi egin zuen akordioa lege moduan. Oraitso, 2017ko urtarrilaren 23an, Palestinako Aginte Nazionalak (PAN) bertan behera utzi zuen al-Aqsa *intifada* osasun-asegurua (Palestinako 400.000 langaberi eta haien familiei doako osasun-asistentzia ematen zien aseguru horrek). Gerora, PANek iragarri zuen al-Aqsa asegurua baliozkoa izango dela aurrerantzean ere, baina soilik familia jakin batzuentzat; sortuko den batzorde berri batek ikuskatu eta baimendutako familientzat. Erakunde sindikalek eszeptizismoz jaso zituzten albisteok, eta harreman publikoen jokalditzat hartu zituzten.

Gizarte segurantzaren aldeko kanpaina nazionalak antolatutako eztabaida publikoen eta herritarren protesten ondoren, Abbas presidentek onartu egin zituen hamla-ren eskakizun asko biltzen zituen lege-emendakinak. Zehazki, kontseiluan ordezkaritza izateko eskubidea lortu dute sindikatuek, eta PANek ere ikuskatzaile-zeregina izango du funts horiek zaintzeko eginkizunean.

### **Finantzak eta interes bateratuak**

Nahiz eta hamla nazionaleko sindikatuek legezko garaipena lortu, legea, azken-azkenean, “estatua-finantzak” uztarri gero eta indartsuagoan bat egiten duen elite agintariaren garaipena izan zen. Besteak beste, honako hauek biltzen dira uztarri horretan: Europako eta AEBetako finantza-erakundeak, AEBetako gobernua, Palestinako bankuak, Golkoko kapitalistak, Palestinako Aginte Nazionala eta Israel. Gizarte-klaseak berregituratzen ari dira ekonomiaren finantziarizazio gero eta sakonagoaren bidez, eta, hain zuzen, Gizarte Segurantzaren 6. legea berregituratze-prozesu horren isla da; izan ere, enpresek eta bankuek, bereziki, askatasuna dute inolako kon-

trolik gabe inbertitzeko, eta langile palestinarren erretiro-pentsioak baliatzen dituzte horretarako. Beren bizitza osoan Israelen eta asentamenduetan lan egin duten palestinarren pentsioak bultzada politiko handia izan ziren legea onartzeko. Osloko akordioaren baitan 1994an sinatu zen Pariseko Protokoloaren 7. artikulua arabera, Israelen eta asentamenduetan jardun izan duten langile palestinarren gizarte segurantzako ekarpenak hilerok deduzitzen zituzten haien Israelgo ugazabek. Funts horiek *Israeli National Insurance Institute* erakundearen esku geratu ziren gero, Palestinako eremura transferitzekotan, horretarako organismo bat sortutakoan. Aipatutako 6. legeak eta haren kontseiluak funts horiek transferitzeko esparrua ezarri zuten. Israelek transferentzia hori egiten badu, Palestinako kapitalistek kapital berria jasoko dute, 3 eta 8 mila milioi dolar arteko puska ederra –Israelen lan egindako langile palestinarren ordainsarrietatik deduzitutako kenkarien balio estimatua– finantza-inbertsio berrietarako. Ez da xedapenik zehaztu pentsioak langileei beraiei transferitzeko.

Desoreka sozialak eta Palestinako gizartearen polarizazioa areagotzeko arriskua dago jokoan –justizia sozialaren gaia–, baina ez hori bakarrik, horren isla banaezina ere bai; hau da, borroka anti-kolonialerako ahalmena bera. Guretzat funtsezkoa da Gizarte Segurantzaren 6. legea ekonomia politikoko mekanismotzat hartzea. Ameriketako Estatu Batuek eta Europako botereek, eskualdean dituzten aliatu estrategikoekin batera (Israel eta Golkoko Estatu Arabiarretarako Lankidetzarako Kontseilua), horien bidez eusten diote eskualdeko aginteari, eta Israelek Palestinaren gain duen aginte koloniala sendotzen dute. Palestinan eta eskualde arabiar osoan gertatzen ari diren esku-hartze politiko eta militar zuzenen paraleloan gertatzen ari da, esparru ekonomikoan, estatuaren eta gizartearen berregituratze neoliberalak. Eta bi mekanismo paralelo horien xedea da eskualdeko ‘botere-ardatza’ indartzea eta herritik sortutako borroka iraultzaileak indargabetzea.

Palestinako eta eskualdeko gaur egungo politika ulertzeko giltzarria “botereen ardatza” da; alegia, Estatu Batuen, Europako herrialdeen, Golkoko Estatu arabiarretako Lankidetzarako Kontseilua osatzen duten herrialdeen (bereziki Saudi Arabia eta Qatar), Israelen eta Palestinako Aginte Nazionalaren (Hanieh) artean eskualdean sortutako interes bateratuen patroiak. 2007. urtetik, AEBetako eta Europako finantza-kapitala lurralde hauetan sartzen joan dira modu esanguratsuan, eskualde mailako eta maila globaleko kapital-zirkuituetan ekonomia sartuz, eta prozesu horren bidez atzerriko botereen eta Palestinako Aginte Nazionalaren arteko interes geo-estrategikoak finkatzen joan dira. Ekonomia politikoko

---



mekanismo berri horiek indartu egiten dute Estatu Batuen garrantzia kapitalismo globalaren eta eskualdeko ordenaren barnean indar nagusi gisa (Panitch, Gindin eta Albo)<sup>6</sup>.

Palestinako Bankua izan daiteke 6. legearen onuradunetako bat, eta batzu-batzuk aberastasuna eta jabetzak metatzen ari direla erakusten duen patroio gero eta nabarmenagoen adibide argia. Lurren eta finantzen arteko loturaren eskutik ari da gertatzen metaketa hori, eta potentzia atzerriarrak eta Palestinako Aginte Nazionala beren interes politikoak are gehiago finkatzeko baliatzen ari dira egokiera hori. Oraindik orain 500 milioi dolarreko hipoteka-finantzaketako programa berri bat abiatu dute, eta Palestinako Bankua da partaide nagusietako bat. Programa horren helburua da jabetzan eskuratutako etxebizitzaren kopurua izugarri handitzea, epe luzearako hipotekak emanda *Affordable Mortgage and Loan Company* (AMAL) deituriko enpresa baten eskutik. Programa hori estu loturik dago 2007an martxan jarritako Etxebizitza Eskuragarriaren Programarekin (Affordable Housing Program). Orduko hartan, mila milioi dolar bideratu ziren programa horretara, Zisjordanian etxebizitza kopurua handitzeko. Palestinako Bankua AMAL konpainia horretako onuraduna, mailegu-emailea eta akzioduna da, eta Bankuaren kontseiluko kideek Palestinan diharduten Golkoko higiezin-sare handiekin lotura dute eta maileguen goraldi horri etekina aterako diote. Horiek dira AEBetako gobernuaren, eskualdeko eta mundu mailako kapitalaren eta Palestinako Agintearen artean estatua-finantzak uztarriaren pean sendotzen ari diren interes komunen patroiak. Interes horiek babestea da PANen jardun autoritarioen eta estatus quo-ari eusteko indarrean duen politikaren helburu nagusietako bat gaur egun.

Horretarako, proto-estatua/PANek funtsezko eginkizun erregulatuak betetzen du, indarkeriaren monopolioan eta legalitatearen definizioetan oinarrituta (Harvey)<sup>7</sup>. PANek merkatu librearen eraikuntzan eta bereziki finantzetan eta lursailetan esku hartzeko eginkizuna du, eta eginkizun horiek funtsezkoak izan dira finantziarizazioa areagotzeko prozesu horretan. Rawabiko luxuzko hirigintza-proiektua babesteko, adibidez, PANek zenbait dekretu onartu zituen kontsumorako kredituen epea 10 urtetik 25era zabaltzeko. Palestinako Diru Agintaritzak bankuek atzerrian eginiko inbertsioak %55era mugatzeko jarraibideak eman zituen 2008an (aurrez %65ekoa zen muga), etxeko maileguetarako beste iturri batzuk sortzeko. AEBetako emaileek eta finantzariek maileguen berme-programak sortu dituzte elkarrekin, kredituen eskaintza bultzatzeko. Munduko Bankua lursailak erosteko eta erregistratzeko proiektuak babesten ari da, eta, aldi

berean, emaileak kreditu-erregistroak sortzeko laguntzak ematen ari dira, bermeen arloan dauden eskakizunak arintzeko. Modu horretara, merkatu librearen lege-oinarriak finkatzen ari dira.

Gizarte Segurantzaren 6. legea Salam Fayyad lehen ministroaren administrazioak sustatutako logika horren parte da. Hain zuzen, Fayyad bera izan zen 2007tik aurrera kontsumorako kredituen hedapen zabalari ekin ziona, Washington-osteko adostasunean oinarritutako nazionalismo ekonomikoa ikurtzat hartuta. Administrazio horren plataforma politikoa bat dator logika neoliberalarekin, eta, horren arabera, gizabanakoa edo familia dira beren ongizatearen arduradun eta estatua salbuetsita geratzen da erantzukizun horretatik. Egoera ahulean dauden biztanleentzako gizarte-zerbitzuak ez bezala (horiek Gizarte Gaietako Ministerioak hartzen ditu bere gain), gizarte segurantza gizabanakoen pentsioetarako ekarpenen sistemarekin dago lotuta. Balio neoliberalen arabera, langile bakoitzak du bere erretirorako pentsioak ziurtatzeko ardura, enplegatutik dagoen bitartean hilero egiten dituen ekarpenen bidez. 2003an, PANek gizarte segurantzari buruzko lege bat eman zuen, sektore pribatuko eta gizarte zibileko langileentzako erretiro-pentsioei begira. Langileen eskubideak legean kodifikatze hori George W. Bush presidentek “Israelen Palestinaren arteko bakerako bide-orria” abiarazi zuen garai beretsuan gertatu zen; prozesu hartan, palestinarren borroka politikoa xedea eta logika Palestinako estatua eraikitzea zen batez ere. Palestinako Aginte Nazionalak gizarte-babesa ziurtatzeko erantzukizunez salbuetsi zuen bere burua, eta langileei esan zien izan zezatela konfiantza finantza-merkatuetan beren erretiro-pentsioetarako; izan ere, gerozko legeen bidez funtzionarioen pentsioak programa jakinetan bildu eta finantza-merkatuetara bideratu zituen, programa horiek merkatuan kudeatzeko eta inbertitzeko. Banku garrantzitsuek, hala nola Palestinako Bankuak, eginkizun funtsezkoa izan zuten sistema berria prestatzeko bide horretan\*.

Kapital-metaketarako beste sektore batzuk prestatzen ari diren bitartean, langileak gero eta ahulago daude, harreman kolonial eta kapitalisten egiturari sustraiturik dauden metaketa primitiboko prozesuen bidez<sup>8</sup>. Israelgo armadaren indarkeria kolonialak ageri-agerian jarduten du, eta

---

\* PANek 2005ean onartu zuen funtzionarioentzako pentsio publikoen 7. legea, eta 2007an moldatu zuen berriro. Urte horretan bertan, PANek bertan behera utzi zuen Gizarte Segurantzari buruzko Legea gobernuz kanpoko pentsioen hautazko programa bat lantzeari ekin zion, sektore pribatuko enpresetako enplegatuei estaldura emateko. Langileen erretiro-pentsioen programa berri hori finantza-merkatuetan kudeatzen eta inbertitzen zen, eta banku garrantzitsuenek funtsezko eginkizuna izan zuten sistema berria prestatzeko lanean.

---

horren isla da, adibidez, Palestinako familiak Jerusalem ekialdeko auzoetatik eta C eremutik kanporatzea, baina, gisa berean, 'Merkatuaren kontrolak' era sotilagoan, azpilanean ia, jarduten du, helburu berak lortzeko. Azken urteetan hainbat kasu eztabaida bizia sortu dute, Zisjordaniako nekazariei eta biztanleei beren lurak kendu dizkietela-eta. Kasu horien artean daude honako hauek: nekazaritza-lur emankorrek konfiskatzea eragin zuten industria-lursailen programak; Rawabiko higiezin-proiektuaren garapena (Palestinako Aginteak inguruko herrietako nekazaritza-lursailak konfiskatzea onartu zuen proiektu horretarako); beduinoen komunitateak beren etxebizitzetatik kanporatzea (Israelen eskutik), eta PANeko buruzagiekin lotura estua duten Palestinako, AEBetako eta Golkoko kapitalisten jabetzako etxebizitza merkeen proiektuetan birkokatzea.

### **Finantzak, lan-diziplina eta bezero-kontsumitzailea sortzea**

Funtsean, zorra eta finantzarizazioa ez dira kategoria ekonomikoak soilik; aitzitik, bizitza soziala gero eta gehiago hitzarmenetan jasotzearen eta diziplina politikoaren logikari jarraitzen dioten fenomenoak ere badira. Europako eta AEBetako erakundeek eta emaleek Israelgo bankuekin lotura instituzionala duten Palestinako bankuei emandako kreditu-kapitalaren azken aldiko emaria dela-eta, Palestinako langileak oso-oso egoera ahulean daude kanpoko krisi ekonomikoaren aurrean eta presio politikoaren aurrean. AEBetan sub-prime hipoteka-maileguen eraginez hasitako azken finantza-krisi globalak berebiziko giza hondamena eta hondamen ekonomikoa ekarri du, eta horrek agerian utzi ditu dauden arrisku guztiak. Baina finantzarizazioaren eta zorraren fenomenoak astinaldi politiko berezia eragiten du Palestinako testuinguru kolonialean. Finantza-erakundeak langileen pentsioetarako aurrezkiak ari dira metatzen, zertarako eta gizarte segurantzaren 6. legearen babesean inbertsioak egiteko, eta hori gertatzen ari den neurrian, langileak eta pentsiodunak, pixkanaka, finantza-merkatuen zirkuitu eta gorabeheren mende geratzen ari dira, eta, horren ondorioz, haien etorkizuna lurraldearen barneko "egonkortasun politikoaren" araberakoa da; alegia, indarrean den egoera kolonialaren araberakoa.

Palestinarrak eraso bikoitza ari dira jasaten: alde batetik, Israelgo kolonizazioaren oldarraldiak, hilketak, asentamenduen hedapena, itxierak, kontrol-eremuak eta bestelako zigor kolektiboak, eta, bestetik, botere ekonomikoek eragindako zukutzea, *homo economicus* espezieko kide bihurtzeraino (ekonomia neoklasikoak planteatutako figura trans-historikoa); izan ere, ekonomia horrek erabaki arrazionalak hartzen ditu beti baina bere

interesaren mesedetan. Langileen arteko finantzarizazioaren eta zorraren fenomeno horrek, hain zuzen, aukera ematen die diziplina politiko hori ezartzeko, eta kontrol kolonialeko palankak etengabe erabiltzeko, horien bidez palestinarrengandik kontzesio politikoak lortze aldera. Erabilitako palanka horien adibide argiak dira Israelek aduanetako diru-sarrerak atxiki izana, emailei boikot ekonomikoa ezartzea, emaileen finantzaketarekin loturiko baldintzak eta abar. Zorren ondoriozko morrontza fenomeno globala bada ere, langile palestinarrek murrizketa bereziei egin behar diete aurre. Parisko Protokoloaren arabera, langile palestinarrek Israelgo politika makroekonomikoak bete behar dituzte, hala nola interesak eta aldaketa-tipoak finkatzen dituztenak. Langile palestinarrek Jordaniako dinarretan jaso dezakete beren soldata, baina seguru asko maileguak AEBetako dolarretan izango dituzte eta, interes-tasa gorabeheratsuen eraginez, langileek etengabeko zalantzan bizi beharko dute beti. Gainera, lege xedapen berezien aginduz, langile palestinarrek maileguak dituzten bankuetara bidali behar dituzte lansariak, eta hala, soldataren portzentaje bat kentzen diete mailegua itzultzeko. Xedapen horrek oso kolokan uzten ditu langile palestinarrek, PANen aduana-sarrerari Israelek ezartzen dien aldizkako bahitura dela-eta. Gerta daiteke une horietan sektore publikoko langileek hainbat hilabetetan lansaririk ez jasotzea, nahiz eta maileguen kuotak berdin-berdin ordaindu behar izan, non eta Palestinako Diru Agintaritzak ez dituen laguntzarako neurri bereziak ezartzen.

Palestina, finantzen funtzionamendu soziala eta politikoa AEBetako finantza-sektorearen hegemonia global zabalagoaren testuinguruan ulertu behar da, eta testuinguru horretan, zorra taktika gisa erabiltzen da kolonialismoaren aurkako altxamenduei aurre egiteko eta 'bake neoliberalaren' bidez biztanleria nahieran erabiltzeko (Bhungalia)<sup>9</sup>. Finantza-tresna berriak erabiltzen ari dira interferentzia politiko zuzenerako baliabide gisa. AMAL programak, adibidez, berariazko xedapenak jasotzen ditu PANeko segurtasun-indarrek programa horretako partaideak iker ditzaten. AEBetako gobernuari atxikitako Overseas Private Investment Corporation konpainiaren finantzaketa nabarmenarekin, programa hori abiarazten duten agenzia guztiek eta haien langileek, baita maileguen onuradunek ere, US Office of Foreign Asset Control erakundearen eta AEBetako legedi antiterroristaren araudiaren azterketa gainditu behar dute. PANen indarrek "mehatxutzat" hartutako Palestinako gizarteko talde batzuek, beraz, ezin dute programa horien onurarik jaso, eta indar horien gainean Abbas presidentearen Fatah alderdiak agintzen du. Programa horretako bazkide den hei-

---

---

nean, Palestine Investment Fund erakundeak edo palestinarren funts subiranoa deritzonak ere terrorismoaren aurkako legedia bete behar du.

Palestinako langileen diziplinatze hori PANen beraren berregituraketaren bidez ari da gertatzen. Beste era batera esanda, PAN bera, Garapen Nazionalerako Planaren talkako erreforma ekonomikoak ezartzera ari da behartzen bere burua, eta, aldi berean, bere agintearen mende daudenak diziplinatzeko ari da baliatzen erreforma horiek. Emaileak eta hartzaileak presionatzen ari dira PAN, gizarte-gastua murriztu dezan, diru-sarrerak handitu ditzan eta defizit orokorra gutxitu dezan. PANek jada erantzun dio kanpoko presioari konpromiso baten bidez; izan ere, Nazioarteko Diru Funtzak ohartarazitako defizit hori murriztu egin da urtebeteko epean: 2015eko lehen sei hilabetean 2.700 milioi shekelekoa izatetik 2016ko lehen sei hilabetean 1.700 milioiokoa izatera. Eta hori langileen bizkar egin da. Estatistika ofizialen arabera langabezia %30 ingurukoa izan arren, 2012. urteaz geroztik PANek sektore publikoan zero kontratazio egiteko politikari eutsi dio. Urte horretako abenduan, PAN gutxieneko soldadari buruzko lehen akordio batera iritsi zen langile talde batekin, Haurtzaindegietako Irakasleen Sindikatuak gidatutako kanpaina bati esker; alabaina, akordioa ez da indarrean jarri oraindik. Sektore pribatuko langileen %33 inguruk gutxieneko soldatetik behera (1.450 shekel) irabazten du.

Azpijanean ari den politika ekonomiko horren testuinguruan ulertu behar ditugu PANen jardun autoritario gero eta nabarmenagoak, bereziki langileen aurka. Mobilizazioa mugatzeko lan arloan eta sindikatuen arloan onartu diren lege berriez gain, langileen antolamenduak errepresio gogorri egin behar dio aurre. 2014ko azaroan, Palestinako Ministroen Kontseiluak sententzia bat kaleratu zuen Funtzionarioen Sindikatua debekatzeko. Ondoren, polizia itxi egin zuen sindikatua, eta sindikatuko kideak atxilotu eta lanetik kaleratu zituen. Maila masiboan antolatzen saiatzen diren lider sindikalei ustelkeria leporatzen diete, eta urte asko irauten duten lege-prozesuetan auzipetzen dituzte; politika neoliberalen eta normalizazio-politiken aurka GKEtan antolatzen diren langile-batzordeak lanetik kaleratzen dituzte modu arbitrarioan eta zerrenda beltzera kondenatzen dituzte. PANek 2016ko udaberrian irakasleen grebak bertan behera uzteko eginiko ahaleginak aurrekari arriskutsua izan ziren: segurtasun-indarrek mehatxatu egin zituzten irakasleak; nortasun-agiriak konfiskatu zituzten; antolatzaileak, kazetari disidenteak eta gizarte-sareetako erabiltzaileak atxilotu zituzten; kontrol-eremuak ezarri zituzten Zisjordanian mobilizazio kolektiboa galarazteko; eta isunak jarri zituzten leku batetik bestera ira-

kasleak eramaten zituzten taxi-gidariei. Irakasleen mugimenduaren antolatzaileak klandestinitatera pasatu ziren.

### **Langile Mugimenduaren kontraesanak**

Langileen sindikatu ofizialen boterea sendotzeko eta langile-mugimenduen barnean eta kanpoan oposizio-korronteak ahultzeko joera politikoak arrisku politiko handiak ditu. Palestina Askatzeko Erakundearen (PAE) sindikatu hauek akordioak dituzte Israelgo Histradrut sindikatu sionistarekin diru-sarrerak banatzeko (azken horrek Israelen lan egiten duten langileen hileko kuotak kobratzen ditu, langileen ordezkariarik izan gabe). Palestinako eta Israelgo sindikatu nagusien arteko aliantza funtsezko ardatza da kontrol kolonialaren egituran eta lan-munduaren zapalkuntzari eusteko estrategietan. Hala ere, Europako, AEBetako eta beste zenbait lekutako sindikatuekin harreman historikoak izan dituzten PAEko sindikatu ofizial horiek dira, hain zuzen, gaurdaino aktibo jarraitzen dutenak, guztiguztiak herri palestinarrekiko elkartasunaren izenean.

Gizarte segurantzaren 6. legea onartzeko prozesuaren eta horren ondorengo erantzunaren argitan uler ditzakegu PAEa atxikitako sindikatuen eta Palestinako Agintearen arteko barne kontraesanak eta, zehazkiago, interes bateratuak –materialak nahiz politikoak–. Erreforma horiek konfrontazio nazionala eragin zuten eta agerian utzi zituzten lan-mugimenduetako eragileen artean dauden zatiketa politiko nabarmenak. Langileen sindikatuak, sektore pribatua, Lanaren Nazioarteko Erakundea eta Palestinako Aginte Nazionalaren lan-ministroa “negoiazio” eta “elkarrizketa sozialeko” prozesu batean inplikaturik egon dira. Bi sindikatu nagusietako (PGFTU eta PTUF) ordezkariak ez dira aukeratzeko, PAEK izendatzen ditu. PGFTUk historian zehar harreman ugari izan ditu Histradrut-ekin (Israelgo sindikatu nagusia), eta, arestian esan dugunez, azken honek Israelera transferitzen du langile palestinarrengandik jasotzen dituen ekarpenen %50. Aurreko urtean izandako eztabaida politikoetan eta bileretan, PGFTU eta PTUF sindikatuak ontzat eman zituzten proposatutako neurri asko eta lege horien kontra agertu zen sindikatu independentea, GFU, bazterrera uzteko ahalegina egin zuten modu aktiboan. Alabaina, kanpainak aurrera egin ahala, hainbat zatiketa azaleratu ziren PGFTUren barnean; izan ere, ezkerreko blokeek idazkari nagusiari eskatu zioten ezaba zezala beren sinadura legetik, gainerakoan federazioa utzi egingo zutela ohartarazita.

---

Sindikatu ofizialen eta Palestinako Agintearen arteko erlazio politikoe-tan bereizten diren interes bateratuak agerian geratu ziren, beste behin, 'Al-Aqsa' osasun-aseguruari buruz 2017ko urtarrilean emandako ebazpe-nean. Aseguru horrek langabeei eragiten die, esku-lanaren %30ari gutxi gorabehera. Yasser Arafatek bigarren *intifadan* ezarri zuen Al Aqsa asegu-rua, langabeek osasun publikoko zerbitzuak doan jasotzeko aukera izan zezaten. Bada, orain, aseguru hori ordainpeko sistema batek ordeztuko du. Orain, legez, osasun-aseguru bat behar duten guztiek PAEren bi sindi-katu ofizialetako batean izena eman behar dute eta dagokien kuota ordain-du. 2008. urteaz geroztik ezarritako politika neoliberalen eraso jasaten ari diren Palestinako 400.000 langabeentzat heriotza-zigor eraginkorra da neurri hori. Erabakia, gainera, noiz eta etxebizitzaren, oinarrizko elikagaien, garraio-bideen eta botiken kostuak etengabe igotzen ari diren garaian iritsi da. Beraz, neurriak egoera ahulenean daudenei eragin die aurren-aurrena: langabezian dauden palestinar asko eta askori, enplegu prekarioak dituz-ten langileei, Israelen lanean ari diren langileei eta lanean osasun-asegu-rua ez duten guztiei. Hala ere, neurri horrek Palestinako biztanle gehien-gehienentzat izan behar du kezka-iturri; izan ere, zer datorren iragarten du. Eraso neoliberal horri segida emanaz, gizarte-zerbitzuak eta funtziona-rioen kopurua gutxituko dituzte, gizarte-babeserako sareak murriztuko dituzte eta osasun-zerbitzuak pribatizatu, eta horrek guztiak are gehiago pobretuko ditu Palestinako sektore gero eta zabalagoak.

Bada beste arrazoi bat Al Aqsa aseguruaren ebazpena esanguratsu egiten duena. Palestinako Oinarrizko Legean jasotako "Elkartzeko Askatasuna" klausularen aurkako eraso nabarmena da dekretu hori, urka-bilur moduko bat mediku-asegururik ez duten palestinar guztientzat; izan ere, edo sindikatu ofizialetara afiliatzen dira edo osasun-zerbitzuei uko egin beharko diete. Dekretu horren arabera, ezin dute osasun-asegururik izan beren zorrak ordaindu ezean. Izena emateko kuoten bidez, beraz, zer eta zorra kobratuko dieten sindikatu berak finantzatu beharko dituzte derri-gorrean. Gainera, mediku-asegurua bilatzen duten langabe guztiak edo lan prekarioak dituzten langileak derrigorrez afiliatzeko betebehari hori, konstituzioaren kontrakoa izateaz gain, Palestinako bi sindikatu ofizialen monopolioa sendotzeko bidea da. Sindikatu ofizialen boterea sendotzeko eta Palestinako langile-mugimenduaren barnean eta kanpoan kontrako korrante guztiak ahultzeko interes komun frogara argia da hori guztia<sup>10</sup>.

Langile-mugimendu 'independentean' ere sortu ziren disidentek. Union of Unemployed edo Langabetuen Sindikatuak (langabeak eta Israelen eta asentamenduetan lan egiten duten palestinarrek ordezkatzeko)

ditu) gizarte-babesari buruzko kanpainak abiarazi zituen 2016ko apirilean, gizarte-babes unibertsala eskatzen zuten mugimendu independente batzuekin bat eginez. Alabaina, beren burua “salduta” ikusi dute hamla nazionalak lortutako azken akordioetan. Haien borrokak agerian uzten du sektore ofizialetik kanpoko langile asko eta asko estu eta larri bizi direla, eta langabeen saldoa gero eta ugariagoa dela. Israelen lan egin izan duen edo egiten duen esku-lan palestinarra kontraesan sakonean bizi da. Ustiaketamodu askoren biktima dira langile horiek: Israeleko muga gurutzatzeko lan-baimena lortu nahi horretan, mafiak agertu dira (Palestinako eta Israelgo enpresa-bitartekarien eta PANeko ministerioetako funtzionarioen artean sortutako mafiak), eta baimen ez ofizialak saltzen hasi dira, itxuragabeko prezioen truke (hilean 800 dolar) benetan enplegua lortzeko inolako segurtasun eta bermerik eman gabe; Israelgo ugazabek ustiatu egiten dituzte eta legez kanpoko langileak erabiltzen dituzte legezko gutxieneko soldataren erdia ordaintzeko eta faltsifikatu egiten dituzte nominak; zer esanik ez, hor dira Histadrut-ek mediku-aseguruagatik, gizarte-segurantzagatik eta kuota sindikalengatik hilero soldatetik kentzen dien puska, langile palestinarrek inolaz ere jasotzen ez dutena. Gizarte segurantzaren 6. legeak aukera emango dio orain Palestinako Aginteari langile palestinarren gizarte segurantzako kenkari horiek kobratzeko, baina ez da inolako xedapenik eztabaidatzen diru hori haien eskura irits dadin.

Legearen onarpenaren harira eta kanpainako disidentziak ikusita, indar hartzen ari diren erakunde sindikalek funtsezko auzi politiko bati egin behar diote aurre: esku-lanaren eta lan egiteko moduen egitura zein aldatzea den kontuan izanda, langileen ordezkaritzarekin zerikusia duten auziak; edota lanaren espazioarekin, desjabetzeekin eta desorekekin loturiko patroï berrien isla diren antolaketa mailako auziak.

### **Praxiari eta ikerketari buruzko etorkizunerako jarraibideak**

Hala adierazi zuen Langabetuen Sindikatuko zuzendariak, langileek dituzten erronka politikoak hizpide zituela<sup>11</sup>:

“Mendebaldeak, AEBek eta Europak Oslo sortu zuten. Mendebaldeko herrialde horiek lagundu zuten Oslo sortzen eta sinatzen, Palestinara ekarri zuten berariazko gobernuarekin. Oslok baimenak eman zizkien pertsona jakin batzuei eta Palestinako faraoi bihurtu zituen. Horren azken ondorioa da barne kontraesanak daudela, azpi-azpian. Pertsonen baitan ere badira kontraesanak. Lidergo aldaketa ekar dezakeen edozein prozesu demokratiko saihesten da. Sindikatu horietan, prozesu demokratikoak

---



haien liderrentzako enpresa-proiektu bihurtu ziren. Langileak salgaien gisakoak dira. Sindikatuek atek itxita hitzartzen dituzte akordioak. Egoera honetan bertan goxo eginda daude. Eta Agintea pozik dago egoerarekin”.

Irakasleen Mugimenduaren garrantzia, Palestinako azken aldiko historian herritarren mobilizazio inportanteena izan den neurrian, ikuspegi horretatik ulertu behar da. Gainera ezarritako lidergo sindikalaren aurkako arbuioaz gain, mugimendu horrek erakutsi zuen langileek badutela beren burua antolatzeke aukera politikoa eta badirela ekiteko beste modu batzuk herritarren boterean oinarritutako alternatiba bat eraikitzen saiatzen direnak. Irakasleen Mugimendua “duintasunaren aldeko iraultza” izan zen, antolatzaileen esanetan. PAEra afiliatutako Palestinako Irakasleen Sindikatu ofizial orokorraren (GUPT) bidez lan-baldintzak hobetzeko hainbat urtetan alfer-alferrik borrokatu ondoren, irakaskuntza publikoko irakasleek mobilizazio erraldoiak antolatu zituzten Zisjordanian, 2016. urtearen hasieran. Errepresio gogorari aurre egin behar izan zion mugimenduak, eta hala, antolaketa horizontaleko taktikak eta estrategiak garatu zituen, “mugimenduaren jatorri demokratikoa eta oinarriak lehenesten” zituen praxiari jarraituz, irakasle eta ekintzaile batek azaldutakoaren arabera.<sup>12</sup> Israelen okupazio zuzeneko garaian (1967-1993) izan ziren antolaketa klandestinoko esperientzia historikoak ere hartu zituen oinarri. Garai horretako ekintzaile beteranoek eginkizun funtsezkoa izan zuten Irakasleen Mugimenduak osatutako greba-batzorde eta azpi-batzordeen antolaketa orientatzeko, eta beteranoen esku-hartze hori ezinbestekoa izan zen mobilizazioari eusteko. Praxiari jakintzaren antolaketa gehitu zitzaion (asteroko mobilizazioen eta greben esperientziak taldean eztabaidatu ziren etorkizuneko taktikak erabakitzeke), baita masen komunikazioa ere. Erresistentzia-kontrola dialektika horretan, PAN gogotik saiatu zen Mugimenduak gizartean lortutako eragina apurtzen, indar zuzena eta taktika ideologikoak erabiliz, irakasleen eta ikasle/gurasoen arteko, garraioko langileen eta irakasleen arteko eta familien arteko eta familia barneko elkartasuna hautsiz.<sup>13</sup> Hala ere, errepresio horrek ez zuen inoiz mugimenduaren barne-egitura apurtzerik lortu, ez eta borrokaren herri-imaginarioa indargabetzerik ere. Irakasleen Mugimenduari buruzko azterketan, honela dio Noonanek: “Greba-batzordeek berebiziko garrantzia dute, erakusten baitute langileklaseak bere burua antolatuz gero, indar handia duela eta boterearen egitura zapaltzailearen zimenduak iraul ditzakeela, itxura batean palestinar arrunten gehiengoaren aurka hain nabarmen hedatutako indar-oreka aldatuz, bai gizartean bertan bai Israelgo okupazioaren gatazkan. Ikuspegi

horretatik, greba-batzordeen esperientzia lagungarri izango da mota guztietako etorkizuneko borroketarako”<sup>14</sup>.

Alabaina, antolatutako langileak, subjektu politikotzat harturik, eta haien praxitik sortutako epistemologiak erabat isildutako errealitatea dira Palestinari buruzko azterlan garaikideetan. Salbuespen bakan batzuk kenduta, Palestinako neoliberalismoari edo kapitalismo berantiarrari buruzko literatura, fenomeno horrek kapitalaren ikuspegitik eragindako hondamena dokumentatzera mugatu da. Hala ere, historiaren irakurketa dialetikoak ozen eskatzen du galdera hau: Nola erantzun diote langile palestinarrek beren herrialdeko proiektu kolonial eta neoliberalari? Saiakera honetan zehaztutako garapenak lirateke erantzun hori orain ematen ari denaren froga: bi mugimenduren arteko dialektika dago, goitik eta behetik. Baina garapen horien eskutik ezinbestean beste galdera batzuk ere planteatu behar ditugu: Nola hezuramaitu dute langile palestinarrek beren borroka-praxia? Nola jaso dezakete borroka horiek ‘boterea mugatzeko’ prozesuaren lekukotza? Hau da, zer “uzten dute agerian aginte-erlazioekiko norgehiagoek”? Iraganeko zer borrokatan sustraitzen dira gaur egungoak, zein da borroka horien historia eta gaur egungo borroka-estrategiek nola eratzten dituzte epistemologia hauek? Zer jakintza atera dezakegu kontrol-eta erresistentzia-dialektika honetatik praxi alternatibo bat hezuramaitzeko eta borrokak bateratzeko?

Borroka hauek gure ikuspegiaren abangoardian jarrita, funtsean interesatzen zaidana Palestinako eta beste leku batzuetako mugimendu sozialek aurrean duten eginkizun politikoa da, premiaz bete beharrekoa: ‘posizioen gerran’ hegemoniari aurre egiteko kontraboterea sortzea, alegia<sup>15</sup>. Honela arrazoitu izan du Al-Nasserik: “Kontraesanak zehazki nola bideratzen diren, zapalduak zer jokabide hartzen duten eta zapalduak nola baliatzen duten egoera hau aurrera egiteko, horren arabera izango da gatazkaren norabidea eta aldaketa politikoak hartuko duen forma. Auzi estrategiko globala honako hau da: gaur egungo krisian zer egin daitezke indar sozialak sendotuta atera daitezten indarrean den egoera errotik apurtzea bultzatzeko?”. Eginkizun intelektual hori, “borrokak lehen planoan jartzekoa, neurri batean, borroka horien parte da...”<sup>16</sup>.

---

1 Hanieh, A., (2011) *The internationalization of Gulf capital and Palestinian class formation*, Capital and Class, (35) 1, pp 81-106; Haddad, T., (2016) *Palestine Ltd: Neoliberalism and Nationalism in the Occupied Territories*. Center for Palestine Studies, SOAS & I.B. Taurus; Bhungalia, L., (2013) *“From the American People”: Aid, Counterinsurgency, and the U.S. National Security State in Palestine*, tesis doctoral: Syracuse University, New York; Tabar, L., y Salamanca, O., (2015) *After Oslo: Settler Colonialism, Neoliberal Development and Liberation*, in Critical Readings of Development Under Colonialism: Towards a Political Economy for Liberation in the Palestinian Occupied Territories, Rosa Luxemburg Foundation and Center for Development Studies, Birzeit University.

2 Beinin, J., y Lockman, Z. (eds), (1989) *Intifada: The Palestinian Uprising Against Israeli Occupation*, South End Press; Aruri, N. (ed), (1989) *Occupation: Israel Over Palestine*, Belmont: Association of Arab American University Graduates Press; Beinin, J., (2001) *Workers and Peasants in the Modern Middle East*, Cambridge University Press

3 Joya, A., Bond, P., El-Amine, R., Hanieh, A., Henaway, M., (2011) *The Arab Revolts Against Neoliberalism*, Center for Social Justice; Beinin, J., (2015) *Workers and Thieves: Labor Movements and Popular Uprisings in Tunisia and Egypt*, Stanford University Press; Al-Nasser, S., (ed), (2016) *Arab Revolutions and Beyond: The Middle East and Reverberations in the Americas*, Palgrave McMillan.

4 Egilearen elkarrizketak Abu Fahed Langabetuen Sindikatuko zuzendariarekin, Zisjordania, Palestina, 2017ko urtarrila.

5 Egilearen elkarrizketak Irakasleen Mugimenduko irakasleekin eta antolatzaileekin, Zisjordania, Palestina, 2016; Noonan, M., (2017) *Self Organization in the Palestinian Teachers' Strike*, in New Politics, XVI.-3 2017ko uda.

6 Panitch, L., Gindin, S., and Albo, G., (2010) *In and Out of Crisis: The Global Financial Meltdown and Left Alternatives*, PM Press/ Spectre

7 Harvey, D., (2005) *The New Imperialism*. Oxford: Oxford University Press.

8 Harvey, D., (2005), *ibid.*

9 Bhungalia, L., *Op.cit.*

10 Nagarajan, N.,(2017) Argitaratu gabeko txostenak kanpaina hau antolatzeko ahaleaginean: *“PA to Abolish Al-Aqsa Insurance for the Unemployed”*, Langabetuen Sindikatuarekin dekretu berriaren aurkako kanpaina prestatzeko eztabaidetan oinarritutako informazio-dokumentua; Sindikatu Independenteen Federazioak eta Langabetuen Sindikatuak ‘bayan’ edo adierazpen ofizialaren gainean eginiko oharrak (ohar horiek Palestinako Ministroen Kontseiluari eman zitazkion), 2017ko otsaila; *“Analysis of Donor Reports Regarding Health Sector Reform”*, Langabetuen Sindikatuarentzako informazio-oharrak, langabetuentzako mediku-aseguruari loturiko kanpaina dokumentatzeko, 2017ko martxoa.; *“Legal Support for Palestinian Workers in Israel”*, Langabetuen Sindikatuaren eta nazioarteko legedian espezializatutako abokatuen arteko dokumentazioa/barne txostena, 2017ko maiatza

11 Egilearen elkarrizketa Abu Fahed Langabetuen Sindikatuko zuzendariarekin, Zisjordania, Palestina, 2017ko maiatza.

12 Noonan, M. (2017), *op. cit.*

13 Irakasleen Mugimenduen antolatzaileekin izaniko eztabaidak, Association France-Palestine Solidarity elkarteko ekintzaile sindikalen ordezkariak eginiko bisitan, Sindikatu Independenteen Federazioko ekintzaileak bertan zirela, Zisjordania, Palestina, 2017ko maiatza.

14 Noonan, M. (2017), *op. cit.*

15 Gramsci, A., op. cit.; Leech, P., (2016) *A War of Position in Palestine*, en Nasser, S., (ed), *Arab Revolutions and Beyond*; Ziadeh, R., and Hanieh, A., (2010) *Collective Approaches to Activist Knowledge: Experiences of the New Anti-Apartheid Movement Organizing in Toronto*, en Choudry, A., & Kapoor, D. (Eds), (2010) *Learning from the ground up: Global Perspectives on knowledge production in social movements*, New York: Palgrave McMillan

16 Al-Nasser, S., (2016), *Introduction*, en Nasser, S., ed, *Arab Revolutions and Beyond*, op.cit., pg. 9

### Nithya Nagarajan

Hemen, zatiketaren auziak sustrai sakonak ditu eta bizitzaren alderdi askotan du eragina, bereziki bizitza politikoan. Oslo ez zen porrota izan israeldarrentzat, erabateko arrakasta baizik, hain zuzen arrazoi horrengatik. Hala ere, uste dut guk geuk ere, eragile solidario garen aldetik, sortutako kontraesan horiei (zatiketa edo “hibernazio” gisa adieraz daitezkeen horiei) buru egin behar diegula; antolaketa politikoaren mailan ditun erronkei aurre egin behar diegula, bereziki finantza-kapitalismoaren garaiotan eta alde kolektiboaren zentzua ezabatzeko hainbeste logika lanean ari diren uneotan; elkarrekin eztabaidatu behar ditugula antolatzeke gure ahaleginean bultzatzen ditugun estrategiak eta taktikak.

Beste aldean, erantzun iraunkorra hizpide duen bat. Kontua da erantzuna kolektiboetan gertatzen ari dela beti, baita eskala txikikoak badira ere, baita luzaroan eusteko gai ez badira ere. Irakasleen Mugimendua izan zen, nola ez, honen guziaren adierazpen publiko eta agerikoena, baita politikoki muturrekoenetako bat ere, hain zuzen, Oslok diseinatutako botere-hierarkiak iraultzen saiatu zelako, antolaketa horizontalaren bidez, oinarritik/masatik abiatutako behetik goranzko ordezkartzarekin.

Osasun Publiko komunitarioko Langileen Sindikatua eta Langabetuen Sindikatua ere (horiekin ari naiz hurbil-hurbiletik lanean) interesgarriak dira arrazoi horrengatik. Osasun Publiko komunitarioko Langileen Sindikatua emakumeen batasun bat da, 80ko hamarkadako Laguntza Medikurako Mugimenduaren bilakaera historikoa. 1980ko hamarkadan, medikuak eta erizainak Zisjordaniako herrixketara bertaratu ziren, osasun arloko lehen mailako arretan emakume gazteak prestatzeko; izan ere, herritarrek zailtasun izugarriak zituzten Israelen okupaziopean zeuden osasun-zentroetan arreta jasotzeko. Mediku eta erizain haiek ikuskera freiriarra zuten; hau da, sortzen ari ziren osasun-arazoei aurre egiteko ezaguerak eta baliabideak tokiko komunitateetan nola erabili, horixe zuten kezkarik handiena. Osasuna abiapuntutzat hartu zuten borroka sozial zabalagoari ekiteko; izan ere, sistemaren eta ingurumenaren aldetik komunitateek jasaten zituz-

ten baldintzen adierazletzat ere jotzen zuten osasuna. Erabakiak hartzeko udal batzordeetan izendatu zituzten emakumeak, eta eskola "nazional" bat ezarri zuten, osasun komunitariorako oinarriko ikuskera horren inguruan emakumeak prestatzeko. Osloren ondorioz eta "estatua eraikitzeko" proiektuaren ondorioz, osasun-sektorea burokratizatu egin zen, eta emakume hauek erabat baztertuta geratu ziren, eta haien kalifikazioak ez ziren onartu. 2007an, batasun bat antolatu zuten beren graduako ziurtagiriak onartzea eta beren arloan enplegua izateko baimena / eskubidea exijitzeko. Beraiek, formalki, irabazi egin zituen bere eskakizunak, baina gehien-goia, nola ez, lanik gabe dago. Emakume nabarmenak dira, borrokariak, bereziki haien borroka Osloren xede nagusiaren aurkakoa delako; hau da, masak antolatzeko bide politiko guztiak apurtzearen aurkakoa. Indar politikoaren erresistentzia nabarmena izan dute: indar horiek diren eta ez diren taktika guztiak erabili dituzte sindikatua zatitzeko, batez ere sindikatu horretan 2016an egin ziren azken hauteskundearen aurreko garaian. Neska gazte suhar eta kementsu batek, Amanik, irabazi zituen hauteskundeak, goi-mailako politikoaren maniobrak eta interferentziak gainditzeko gai izan ondoren. Berak ahalmena izan zuen hori egiteko, besterik gabe borrokatzeko erabaki irmoa zuelako, eta Zisjordaniako sindikalista asko eta askoren errespetua du. Berak ere sindikalisten prestatzaile / hezitzaile moduan egiten du lan Palestinan. Garrantzitsua da nazioarteko elkartasunaren esparruan diharduten eragileek borroka honen protagonistei entzutea. Haien esperientzia ispilu bat da, gaur egun ikusten ditugun kontraesanen eta zatiketaren iturri politikoak ulertzeko, eta emakume eredugarri hauek zergatik ari diren borrokan jakiteko! Batasun hori sortu zuten emakumeetako batzuekin hitz egin nuenean, zirrara gehien sortu zidana beren borrokan sentitzen zuten isolamenduaren alderdi psikologikoa izan zen; eta plataforma bat izatearen izugarritzko garrantzia, beren borrokaren historia nazioartean antolatzen ari diren eragileekin partekatu ahal izateko.

Langabetuen Batasuna 1990eko hamarkadaren amaieran eratu zuen Hebron hegoaldeko muinoetako herrixka bateko langile batek. Palestinan borrokalaririk bada, 48ko lurraldearen barnean pobre eta langabetu masen eta langile palestinarren sufrimendua aintzat hartuta gobernuari traidore oihukatu dionik bada, hori Abu Fahed da. Gaur egun 60 urte ditu, eta bizitza osoa Israelen eman du lanean, eraikuntzan eta azulejoak fabrikatzen eta era guztietako lanak egiten. 1990eko hamarkadaren amaieran, antolatzaileren sare bat eratu zuen Zisjordania hegoaldeko hamahiru komunitateetan; hain zuzen, sare hori bihurtu zen Langabetuen Sindikatua. Haren lana mehatxu handizat hartu zuten Fatahen tokiko indarrek, eta Fahed beraren

---

eta sindikatuaren kontrako ustelkeria-kasu bat abiarazi zuten. Epaiaketak 10 urte iraun zuen, eta Fatahk neurri batean lortu zuen bere xedea: Faheden eta sindikatuaren lana oztopatzea eta etetea. Sareak irauten du, nahiz eta antolaketa aldetik ahul egon. Abu Fahed bere kabuz aritu da kanpaina egiten langabetuentzat (biztanleen %30) eta 48ko langile palestinarrentzat oinarrizko eta legezko babes sozialak ziurtatzeko; izan ere, biztanle horiek bereziki egoera ahulean daude ustiaketa-modu guztien aurrean, bereziki Israel gurutzatzeko lan-baimenak eskuratzen ahalegintzen direnean (Palestinako Aginteko buruzagiak mafietan nahasita daude gaur egun, etsipenak jotako langile palestinarrei 600 - 800 \$-etan baimenak saltzen). Israelgo enplegatzaileen esplotazioa salatzen ere aritu da Fahed, langileen legez kanpoko egoera baliatzen baitute haien legezko gutxieneko soldataren erdia ordaintzeko eta nominak faltsifikatzeko, aipatu gabe osasun-asegurugatik, gizarte segurantzagatik eta tarifa sindikalengatik hilero soldatetik kentzen dietena, langile palestinarrek ez baitituzte kenkari horiek inolaz ere jasotzen. Lansari sindikalak Israelgo Histadrut sindikatuaren eskura doaz, eta horien %50 PGFTUrekin (Sindikatuaren Palestinako Federazio Nagusia) partekatzen da, Osloren ondoren PGFTU eta Histadruten artean hitzartutako akordioaren bidez. Berriki onartutako 2016ko Gizarte Segurantzaren Legeak aukera emango dio orain Palestinako Aginteari garai horretan guztian Israelen lan egin zuten langile palestinarren soldatetik deduzitutako diru hori guztia kobratzeko, baina legean ez da inolako xedapenik jaso eta ez da inolako eztabaidarik izan diru hori bizitza osoan Israelen lanean pasatu zuten langileen eskura irits dadin. Hain zuzen, pertsona horiek, Abu Fahed bezala, ahituta eta erretiratuta daude gaur egun, bizirik irauteko borrokan. 48'an lan egiten duten palestinarrek dira kaltetuenak, haientzat ez baita babesik lege palestinarrean, ez eta, noski, lege israeldarrean ere, eta hortaz, bien ustiaketa jasaten ari dira. Nork ordezkatzeko du langile horien sufrimendua? Horra Abu Faheden galdera. Hori dela eta, koalizio politiko bat antolatzeko ahalegina egin zuen, oraindik orain (2017an) langabetuentzako osasun publikorako aseguruia bertan behera uzteko presidentek onartu zuen dekretuaren aurka borrokatzeko. Hemen eta nazioartean legeak ematen dituen aukerak hobeto ulertu nahi ditu Fahedek, langile-klaseko talde horien alde kanpaina egiteko.

Erakunde horiek ez dira panazea bat, ahulak dira, eta egunero borrokatzen dira errepresio-taktika guztien aurka, baina masekin lan egiteko praxitik hurbil mantentzen dira. Adiskide horiekin ari gara eztabaidatzen. Haien ahaleginak, haien borrokak, oro har, orientabide politikoa ematen

diote nire lanari berari. Beste adiskide asko ari dira eskala txikiagoko kolektiboetan, antolatze ahaleginean, gaur egun dauden egitura sindikalen barnean eta kanpoan. Hor dira, besteak beste, Haurreskoletako Irakasleen Sindikatua (GFIUren parte den emakumeen sindikatu bat) 2013an gutxieneko soldataren aldeko kanpaina nazional bat gidatu zuena, normalizazio-politiken aurka borrokatzen duten langile-batzordeak, irakasleen mugimendua, elikadura-burujabetzaren aldeko ekimenak eta abar, baina haien ahotsak marjinalak bihurtzen dira, eta borroka zatikatuta daude. Bisitan datozen ordezkari gehienek inoiz ez dute aukerarik izaten haien borroken berri jakiteko, eta horrek berak agerian uzten du zein den ordezkari-tzen bisiten politika! nork antolatzen dituen tour horiek, eta nor ezagutzeko aukera ematen den, zenbat denbora duten ez da ausazko kontua.

Hauek dira nire galderak: Nola eman diezaiokegu garrantzia borroka hauei nazioartean? Zer egin dezakete adiskide hauek –sakrifizio handiak egin eta beren borroka larrutik ordaindu duten borrokalari hauek– European Palestinarekiko elkartasunari buruz ematen ari diren eztabaidetan parte hartzeko? Ba al dugu ahalmenik eta aukerarik truke eta azterketa sakonagorako prozesu bat sortzeko? Eta horren bidez orientatu al ditzakegu politikoki nazioarteko elkartasun-bide berriak, beste kanpaina batzuk?

Bigarren mailako arazo bat da ea truke horiek foro publiko handietan egin beharko liratekeen (Belgikako biltzarrean, adibidez), edo bide eta modu zuzenagoak erabili beharko liratekeen horretarako, kontuan izanda zer-nolako errepresio indartsua dagoen hemen.

48ko langile palestinarren eta langabetuen inguruko auziei ere premiazko arreta politikoa eskaini behar zaie, baina ez dago eskualdean 48ko langile palestinarren eskubideen izenean legezko borroka serio bati eusteko adinako indarra duen koalizio politikorik. Erreakzioa esanguratsua litzateke, tartean direlako, besteak beste, Israel, PAN (Palestinako Aginte Nazionala), Histadrut eta PGFTU. Abu Fahed ekintzaileari esan zioten moduan: “Palestinako Agintearekin eta legez kanpoko baimenen auzian nahastuta dauden israeldarrekin lotura duten mafien aurka borrokatzen hasten bazara, zure heriotza-sententzia izango da”. Bera prest dago borrokatzeko, baina non dago presio horri eutsiko dion erakundea, non dago beharrezkoa den nazioarteko babes eta mobilizazioa? Aztertu al ditzakegu arazo horiek, gutxienez errealitate zikinaren egiazko sakontasuna ulertzeko, eta ondoren nazioartean dauden aukerak?

---